

Erakundearen Memoria 2023



Acogida, cooperación
y sensibilización

Nazioarteko lankidetzarako proiektuak





Filipinak (Manila-Quezon City)

Eskola, elikadura eta osasun laguntza lehen mailako ikasleentzat eta unibertsitateko bekak

- Kontrako alderdia: Jesusen Bihotzaren Ahizpa Misiolariak (MSC).
- Finantzaketa: Pertsonalde

Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzako laguntza

2023an, lehen hezkuntzako 70 adingaberi (eta haien familiei) eta bigarren hezkuntzako 44ri eman zaie laguntza.

Prestakuntzarako laguntzaz gain, programak jantoki-zerbitzua ere aintzat hartzen du.

Programa honetan partzen duten adingabeak **oso egoera zaurgarrian dauden familietatik datoz**, eta, beraz, kasu askotan horixe da eguneko otordu bakarra haientzat.

Horri esker, **janari elikagarria hartzen dute**, prestakuntza-prozesuei eta nor bere adinaren araberako hazkunderari eutsi ahal izateko.

Programa dela bide, **familia-giroa ere ezagutzen da**, bisitak egiten dira etxean eta horietan antzematen diren **osasun-premiei erantzuten zaie**.

Programa honetan lehen hezkuntzatik parte hartu duten unibertsitateko ikasleei laguntzea

Ikasturte honetan, unibertsitateko 4. mailako lau bekadun izan dira. Urrian graduatuko dira eta laneratzeko aukerak handiak dira. Gaur egun, unibertsitateko 22 bekadun ditu programak.

Programa honetan parte hartzen duten unibertsitateko eta bigarren hezkuntzako ikasleek lehen hezkuntzako umeen irakaskuntzan ere parte hartzen dute; hala, boluntario-lanak egiten dituzte ume horiei laguntzeko eta prestakuntza-errefortzua emateko.



Honduras

“Iribarre baten magia” eta “Bizikleta Solidarioa” proiektua

- Kontrako alderdia: Zaki Magoa
- Finantzaketa: Pertsonalde

Proiektu honen helburua da haurrek haur izateko eskubidea dutela ohartaraztea; ildo horretan, ezin dute haurtzaroa galdu bizitzaren aro horretaz gozatu barik. Era berean, neska-mutikoek jolasteko, amesteko, barre egiteko eta balioak ikasteko daukaten eskubidea aldarrikatzen da.

Jarduera ibiltariak egiten dira, hala nola magia komikoa, magia tailerra edo malabarismo-tailerra.

Guztira 20 magia-jarduera eta 60 tailer egin dira ikastetxe, ospitale eta erietxeetan, umezurztegietan, haurren etxeetan eta espetxeetan. Eta hainbat material emateko ere baliatu dira jarduerok:

- liburuak: 1
- arropa: 11
- aulkiak: 55
- mahaiak: 10
- jostailuak eta jolas-materialak: 65
- josteko makinak: 17
- ordenagailuak: 13
- patinete bereziak: 2
- sorta medikoak: 5

Honduras Bizikleta Solidarioa premia gorrian bizi diren Hondurasko lekutako herrixka eta komunitateetako pertsonen laguntza emateko sortu zen, hots “inor ez direnei” laguntza emateko.

Landa eremuetako biztanleek ahalegin handia egiten dute lanera eta eskolara joateko. Pertsona batzuek 2,5 eta 3,5 ordu arteko denbora eman behar dute oinez joan-etorriak egiteko, eta beste horrenbeste denbora etxera itzultzeko.


Lanera joateko bizikleta edukiz gero, etxera itzul daitezke gaua familiako kideekin batera egoteko.

Proiektu honi esker, ibilaldi luzeak egin beharrean, pedalei eragiten diete. Kasu askotan, gazteak ikasten jarrai dezaten gogatzeko modu bakarra izan da.

Guztira 152 bizikleta banatu dira.

Errepideko 26 bizikleta banatu dira Atlantida eskualdean, eta 45 triziklo eta patinete ere banatu dira hainbat komunitate eta herrixketako haurtzaindegietan.





Perú

(Ica eskualdea)

“Indarkeria-motaren bat jasaten duten emakumeen aldeko proiektua”

- Elkarlanean garatutako programa: Lankidetzarako Ingeniaritza (ICLI) eta Pertsonalde.
- Kontrako alderdia: Coprodeli Fundazioa
- Finantzaketa: Getxoko Udala

Proiektuak "klubak" sortzea sustatzen du, hau da, indarkeria-egoeran edo indarkeria jasateko arrisku handian dauden eta/edo ICA eskualdean kalteberatasun-egoeran dauden emakumeen elkarteak sortzea.

Proiektuak emakumeen aldeko klub bakoitzaz arduratzen diren begiraleen prestakuntza ahalbidetzen du. Horretarako, asteroko prestakuntza-saioak eskaintzen dira, eta haietan hainbat gai garatzen dira: familia-harremanak, bizimodu osasungarria, eskubideak eta betebeharrak, erantzukizun soziala, autonomia ekonomikoa...

Aipatutako begiraleak arduratzen dira prestakuntza-prozesu horiek emakume-talde bakoitzean garatzeaz.

Elkarte bakoitzak zuzendaritza-batzordea hautatzen du, hura batzordeburuak, idazkariak eta diruzainak osatzen dutela. Batzorde hori begiralearekin koordinatzen da.

Batzorde horrek klub bakoitzeko kide diren emakumeei laguntza humanitarioa hel dakien kudeatzen du, batez ere elikagaiak, bai eta

aurrezkoa eta interes oso txikiko maileguak eskuratzea sustatzen duten elkarlaneko mikrobankuak ere, azken finean, emakumeen independentzia ekonomikoa errazteko helburuz.

Eskualdean, 8 elkarte osatu dira eta, guztira, 80 eta 100 emakume arteko taldea eratu da.

Emakume bakoitzak bizi-proiektu bakana eraikitzen dihardu lanean, prestakuntzan lantzen diren alderdietan oinarrituta. Alderdi horiek direla medio, arlo bakoitzeko gaitasunak eta trebetasunak lantzen dira.

Garapen hori guztia tokiko eta eskualdeko agintariekin koordinatuta egin da, bai eta proiektua ezagutaraztea ahalbidetu duten beste erakunde batzuekin ere, hala nola emakumearen larrialdi-zentroarekin (CEM), osasun mentaleko zentro komunitarioekin (CSMC) eta osasun-etxeekin. Era berean, haiekin koordinatuta lan egiten da proiektuaren garapenean zehar, deribazioak eta sinergiak landuz.

Gizarteratzeko harrera eta laguntza proiektuak





Artizar

Adingabe eta nerabeentzako gizarte- eta hezkuntza-proiektua.
Sestao (Bizkaia)

- Hazbide Fundazioarekin lankidetzan.
- Finantzaketa: Pertsonalde 15.000 €
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektu honetan, ondokoei lagundu diegu:
6 eta 18 urte arteko 102 adingaberi.,
eta zaugarritasun-egoeran dauden 77 familiari.

Helburu nagusia da **Sestaon gizarte-bazterkeriako egoeran edo horren arriskuan dauden adingabeei eta haien familiei** gizarte-eta hezkuntza-laguntza pertsonalizatua ematea, kalteberatasun-egoera horiek gainditzen laguntzeko eta erabateko gizarteratzea lortzen errazteko.

Gauzatutako lana honetan datza: **Hezkuntza indartzea, aisialdia eta astialdia sustatzea, laguntza eta arreta psikologikoa ematea, norberaren zein taldeko emozio-gaitasunak garatzea, ikasitakoan orientatzea, familiak laguntzea** eta zuzeneko laguntzak ematea, eskolaratzeko zein familien premia materialei erantzuteko.

Proiektua ondokoei esker garatu da:

- **boluntarioek** osaturiko talde bati, zehazki: hainbat adinetako **50 boluntario** (% 48 emakumeak eta % 52 gizonak), gazteak nagusi direla.
- lanaldi osoan kontratatutako **3 profesional** osatutako taldea, koordinazio-taldean aritzen direnak.
- eta **Lagungo Fundazioko profesional bat**, aurrekoekin lankidetzan aritzen dena.
- **Pertsonaldek** atzerritarren gaiei buruzko **lege-aholkularitza** ematen die programan parte hartzen duten familiei.

Proiektua beste erakunde batzuekin koordinatuta egin da:

- Sestaoko ikastetxeak.
- Sestaoko oinarritzko gizarte zerbitzuak eta EISE.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Haur Zerbitzua eta foru-erakundearen harrera-etxeak.
- Sestaoko eta Bizkaiko Caritas
- Haurren aldeko Caixa sarea.
- Pertsonalde elkarteak eta Lagungo Fundazioa.

Pertsonalde elkarteak proiektuan parte hartzen duten adingabeekin egiten diren irteeren eta egonaldien kostuaren zati bat ordaintzen du, eta, zehatzago esanda, honako jarduera hauek finantzatzen ditu:

Aisialdia eta astialdia:

- Irteerak eta egonaldiak hurrekin Elgoibarko Aubixa baserrian eta Zarautzen.
- Udalekuak.
- Bisitak eta jarduera bereziak.
- Familia-irteera Gorkizera. Jarduerei lotutako materialen gastuak.

Eguneroko jardueretan erabiltzeko materialak erostea:

- askaria,
- osasun- eta higiene-materiala,
- material didaktikoak.



Loturak

Birkokatutako familientzako eta nazioarteko babes eskatzaileentzako harrera-proiektua
Getxo eta Uribe Kostako Mankomunitatea (Bizkaia)

- Erakunde hauekin koordinatuta: Ellacuria Fundazioa, Bizkaiko Caritas eta Getxoko Udala.
- Finantzaketa: Eusko Jaurlaritza

2023an, Loturak programa zabaldu egin da, eta hartzaile gehiago aintzat hartu dira programan:

- asiloa edo aldi baterako babesa eskatzen duten pertsonak ez ezik, etorkinak, etxebizitza pribatuetako familia-harreraren daudenak edo tokiko harrera-taldeen bidez laguntzen diren familiak.

Aurten ikusi dugunez, programa horren bidez artatu ziren Ukrainiako familia ugarik programa baliatzeari utzi diote eta eginahalak egin dira programaren ezaugarriekin bat datozen beste familia eta pertsona batzuei laguntzeko.

Pertsonekin eta/edo familiekin esku hartzeko prozesuan, honako ekintza hauek egin dira:

Hartutako pertsonekin eta/edo familiekin

- Balizko harreraren balorazioa eta harrera akordioa:
 - Elkarrizketak egin dira harrera-familiekin, motibazioa, itxaropena eta egokitasuna baloratzeko.
 - Elkarrizketak egin dira harrerako familiarekin, haien egoera baloratzeko.
 - Parte-hartzaileen konpromisoak eta erantzukizuna landu eta adostu dira, eta harrera-akordioa sinatu da.
- Harreraren jarraipena

- Harrera-familiantzako informazioa, orientazioa eta laguntza
 - Harrera-familiei aholkuak eta orientazioa eman zaizkie, bizikidetzaren dinamikarako eta hartutako familien integrazio eta administrazio prozesuetan laguntzeko.
- Harreraren hartutako pertsona eta familiantzako informazioa, orientazioa eta laguntza.
- Prestakuntza
 - Bizikidetzari, gatazka konpontzeari, doluan edo galeretan laguntzeari eta abarri lotutako gaien buruzko prestakuntza espezifikoak.
- Koordinazioa
 - Programan esku hartzen duten eragileekiko koordinazioa landu da, batez ere, Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuekin, familia bakoitzaren laguntza eta baliabideak koordinatzeko.
- Autonomia sustatzea harrera bitartean eta ondotik.
- Kudeaketa ekonomikoan laguntzea
- Lan-arloko laguntza
- Etxebizitza bilatzeko laguntza
- Osasun-baliabideetarako laguntza
- 16 urtetik gorako eskolatzeko eta prestakuntza
- Aholkularitza juridikoa
- Behar izanez gero, laguntza osagarriak eskuratzeko laguntza.
 - Bidezko laguntza ekonomikoak eskuratzeko eskaerak bete dira, onuradunak lagundi dira eta haien egoera aztertu.
 - Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxe pribatuetan hartutako familiei ematen dizkien "Azken Sarea Indartzen" laguntzak kudeatu dira.

- Beste batzuk
 - Cobertura de emergencias.
 - Disponibilidad de servicio de traducción.

Tokiko harrera-taldeek lagundutako pertsonekin eta/edo familiekin

- Lehen harrera
 - Boluntarioen taldeari lagundu diogu eskubideak eskuratzeari buruzko alderdi guztietan.
- Herreran hartutako pertsonekin egindako jarduerak
 - Bisitak udalerrian, txangoak, topaldiak... Auzoko, herriko eta abarreko jardueretan parte hartu da.
- Herreraren jarraipena
 - Oro har, boluntarioentzako eta harrerako tokiko taldeentzako informazioa, orientazioa eta laguntza
 - Herreran hartutako pertsona eta familientzako informazioa, orientazioa eta laguntza
- Elkarrizketa lantzeko eta ezaupideak trukatzeko guneak
- Herreran hartutako pertsonen sare soziala indartzea

- Autonomia ahalbidetzea proiektua amaitutakoan:
 - Laguntza ematen dugu jarduera ekonomiko eta profesionaletan.
 - Behar izanez gero, laguntza osagarriak (BGDS, DSBE...) eskuratzeko laguntza ematen dugu.

Lagundutako pertsonen kopurua: 39 (18 emakumeak, 8 gizonak eta 13 adingabeak)

- Jatorria:
 - Ukraina: 30 pertsona (11 familia)
 - kolonia: 4 pertsona (1 familia)
 - Maroko: 5 pertsona (3 familia)
- Administrazio-egoera
 - Aldi baterako babesa: 30 pertsona (11 familia)
 - Asilo-eskatzaileako: 4 pertsona (1 familia)
 - Egoera irregularrean: 4 pertsona (2 familia) + 1 pertsona



Goihabe proiektua

Getxo (Bizkaia)

- Getxoko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.
- Erakunde hauekin koordinatuta: Ellacuria Fundazioa, Zehar Errefuxiatuekin, Gurutze Gorria, Lagungo eta Bizkaiko Caritas.
- Finantzaketa: Getxoko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Goihabe programa Bizkaiko Lurralde Historikoan diseinatutako programetako bat da, iheslariak eta nazioarteko babesaren onuradunak gizarteratzeko premiazko eta beharrezko beharrizanei erantzuteko. Programa hori Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen du eta Getxoko Udalak garatzen du udalerrri honetan, Pertsonalderekin batera lankidetzan, komunitate-laguntza emateko helburuz.

Hartzaileak

Getxoko udalerrian lantzen den Goihabe programan ezarritako baldintzak betetzen dituzten asilo- eta babes-eskatzaileak, zaugarritasun egoera berezia dutenak eta gobernu edo administrazio eskudunak eskainitako babesak bizitza autonomoa izateko eta erabat gizarteratzeko aukerarik ematen ez dienak.

2023an, **14 familia-unitate** izan dira Getxon, programaren esparruan, **25 pertsona guztira**, jatorri askotakoak: Honduras, Nikaragua, Kolonia, Venezuela, Maroko, Aljeria, Mendebaldeko Sahara eta Kirgizistan.

Esku-hartzeko esparruak

Pertsonalde, bereziki, harreman- eta komunitate-arloekin lotutako gizarteratze-alderdiak lantzen ditu. Esku-hartzea udal-testuinguruan eta garatzen du komunitatearekiko harremanari helduta.

Hauexek dira Goihabe programan esku hartzeko ildo zehatzak:

- Migrazio prozesuek eragindako egoeren gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea, eta esku-hartze psikosoziala eta afektibo-emozionala, laguntza komunitarioaren dimentsioaren laguntzarekin.
- Informazioa eta orientazioa.
- Hizkuntza laguntza, pertsona bakoitzaren mailara egokituta, taldeka edo banaka, gaztelaniaz eta/edo euskaraz.
- Bitartekaritza eta sentsibilizazioa: pertsona bakoitza bere istorioaren protagonista izan dadin, ahotsa emanda beren istorioak, migrazioaren arrazoiak eta beste gai asko zuzenean partekatu nahi dituzten pertsoneri, harrera gizartea sentsibilizatzeko.
- Elkarreragina bultzatzea pertsonaren eta familiako, taldeko eta komunitateko inguruen artean.
- Elkar+ Topagunearen bidez dauden baliabideak erabiltzea.
- Etxebizitza: udal erakundeak eskainitako etxebizitzaren kudeaketa eta laguntza, autonomia handiagorako trantsizio garaian.



Zaurgarritasunari erantzuteko proiektua

Getxo (Bizkaia)

- Getxoko Udaleko Gizarte Kohesioko Arloarekin lankidetzan.
- Finantzaketa: Getxoko Udala.

Proiektu honen bidez, **inklusio ibilbideak eta bazterketa arriskuan dauden pertsonen premiei erantzuteko zerbitzuak** eskaini dira Getxoko udalerrian.

Getxoko udalerrian bizi den kolektiboa laguntzeko sortu zen ekimena. Horretarako, ezinbestekoa izan da udalerriko Gizarte Kohesio Arloarekin eta Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea.

Horrela, artatutako pertsonak Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik bideratu dira, zaurgarritasun egoerak dituztelako beren bizitza eta laneratze prozesuei dagokienez.

Programa hori bi fasetan garatzen da, lehenengoa harrera-prozesuei lotua eta bigarrena autonomia lantzeko dinamikei atxikia. Guk egiten dugun esku-hartzea bigarren fase horri doakio.

Programak **autonomiako bi etxebizitzatarako modua eskaintzen du**, 11 plaza guztira, eta horietatik hezkuntza-laguntza ematen da.

Programak **egoiliarrek ez diren 15 laguni** ere laguntza eskaintzen die. Hezkuntzaren arloko esku-hartzearen eta komunitate-ikuspegia darabilen laguntzaren bidez, trebetasun eta tresna pertsonalen garapena errazten da hainbat arlotan, hala nola arlo sanitarioan, administratiboan, prestakuntza- eta lan-arloan, ekonomikoan, aisialdian eta astialdian... Eta harremanak lantzeko aukerak ere eskaintzen dira, loturak ehuntzeko eta haien bizitza-errealitatearekin lotutako hainbat egoera artatzeko, horiek guztiek gizarteratze-prozesuak eta -ibilbideak errazten dituztela.

Gainera, programa honetan parte hartzen duten pertsonen topaguneko jardueretan parte har dezakete, gizarte-gidaritzaren proposamenean parte har dezakete eta atzerritarren arloko zerbitzu juridikoaren laguntza jasotzeko aukera dute.

2023an, 37 pertsonari lagundu zaie guztira, 21 etxebizitzetan bertan eta laguntza eman zaie egoiliarrek ez diren beste 16 pertsonari.



Trapezistak proiektua

Bilbao eta Sondika

- Agintzari elkartearekin koordinatuta.
- Finantzaketa: Eusko Jaurlaritza.

Trapezistak **ibilbide pertsonalizatuen eta integralen programa da**, Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen erakunde arteko eta sail arteko estrategia koordinatu batetik abiatuta, **Euskadin familia-laguntzako sarerik gabeko migratzaile gazteak gizarteratzeko eta helduarora igarotzeko prozesuak bultzatzeko**, gizarte-sektorearekiko erantzunkidetasun-tresnak eta ikuspegi komunitarioa erabiliz.

Programan parte hartzeko irizpideak ondokoak dira:

1. Benetako bizilekua Euskadin izatea, gutxienez, 18 hilabetetako, 2021/12/31 datatik atzera zenbatuta.
2. Dokumentazioa indarrean egotea eta berritzeko aukera izatea (dokumentazio ofiziala).
3. Norberaren egoera erregularizatzea eragozten dioten aurrekari penalik ez izatea.
4. 27 urtetik beherakoa izatea.
5. Prestakuntza kualifikatzailearen batean matrikulatuta egotea.
6. Laguntza tekniko-hezitzailea izatea.
7. Lanerako desgaitasunik ez izatea.
8. Hizkuntza-maila erdi-autonomia oinarritzko izapideetan.
9. Gaien kontsumoei lotutako arazorik ez izatea.
10. Behar adinako laguntza-sare familiarrik edo sozialik ez izatea.

Proiektuak honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Laneko prestakuntzarako eta bitartekaritzarako laguntza.
 - Gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza.
 - Bizitegi-irtenbide komunitarioak.
 - Gastu pertsonalak, elikadurakoak eta egoitzakoak ordaintzea.
 - Astero bisita egitea etxebizitzara, zaintza eta garbitasuna, elkarbizitzaren dinamika eta zereginen banaketa ikusteko.
- Lantzen diren alderdiak:
- Administrazioa - Prestakuntza - Lana/enplegua
 - Hizkuntza - Habitata - Parte-hartzea/Komunitatea
 - Gizarte eta hezkuntza alorretako esku-hartzea

Pertsonalden **9 plaza** ditugu gazte horiei laguntzeko, eta, horretarako, bi egoitza-baliabide ditugu Bilbon eta Sondikan.

2023an zehar 16 gazteri lagundu diegu.



Emakumetasunez proiektua

Getxo (Bizkaia)

- Getxoko Udaleko Gizarte Kohesioko Arloarekin koordinatuta.
- Finantzaketa: La Caixa Fundazioa

Proiektuak etxebizitzarako modua errazten die adingabeak ardurapean dituzten **emakume migratzaileei**, bereziki, egoera zaurgarrian daudenei, hainbat arrazoirengatik, hala nola baliabide ekonomiko nahikoak ez izateagatik, bizi diren etxebizitzatik joan behar izateagatik, lana galdu izanagatik eta udalerrian eskuragarri dagoen edo duina den beste egoitza bat aurkitzeko aukerarik ez izateagatik.

Egoera hori oso kezagarria da ama guraso bakarra den familietan duen inpaktuagatik: emakumeek ahalegin handia egin behar dute seme-alabak beren kabuz hezteko, eta gainera, familia mantentzeko diru-sarrerak sortzen dituzte, seme-alabak laguntzen dituzte eta giro afektiboa eta segurua sustatzen dute.

Familia horiek laneratzearen prekarietatea jasaten dute, oro har, zaintzaren edo garbiketaren arloetan, ordainsari baxuak eta egonkortasun eskaseko lan nitxoak izaten dira (askotan egoera irregularrean). Lanean ematen duten denbora baldintzatuta dago ordutegiengatik eta haurrak zaintzeko denboragatik.

Proiektu honetan, etxebizitza aldi baterako da, **etxebizitza modu arruntean alokatzeko zubi** bat da, eta aldi horretan zehar,

hezkuntza laguntza ezartzen da, profesionalekin. Zerbitzua eskuratzeko lehentasuna dute zaurgarritasun arrisku larriagoa dutenek.

Etxebizitzan familia bat baino gehiago biziko dira, betiere familiek duintasunez bizi eta beren intimitatea eta elkarbizitza egokia zainduta.

Pertsonalderen bidez, **erakundeko boluntarioekin harremanetan jar daitezke**, eta horrela, emakumeek beren kapital soziala handitu dezakete. Harreman hori Topagunearen bidez ezartzen da, bertan garatzen baita esku-hartze komunitarioa.

Proiektuak 2022an izan zituen emaitzak eta eragina:

- **4 familia talde**
- **10 pertsona: 4 emakume heldu eta 6 adingabe**

Arreta jaso duten familien artean, batek alokairu arrunteko etxebizitza eskuratu du, baliabidean hilabete batzuk eman ondoren. Egoera erregularizatu eta lan-kontratua lortu duenean irten da baliabidetik.

Topagune: Elkar⁺



Getxo (Bizkaia)

- Finantzaketa: Getxoko Udala.

Elkar + topaguneak Getxoko askotariko bizilagunentzako, Pertsonaldeko boluntarioentzako eta migrazio prozesu batean murgilduta dauden pertsonentzako topagune izan nahi du.

Espazio irekia da, kultura artekoa, Getxoko erreferentzia.

Horretarako, boluntarioen talde zabala eta engaiatua izan dugu lagun, Topagunean parte hartu eta jarduerak egin dituenak.

JARDUERAK

Solasaldiak eta hitzaldiak

Immigrazioaren inguruan sentzibilizatzea, gai hori eta kultura artekotasuna lantzen duten jardunaldi, hitzaldi eta tailerren bidez. Ostegunetan egin dira, 18:00etatik 19:00etara

- **2023ko urtarrilaren 31** Transpirenaica Social Solidaria, solasaldia Nuria Burgadarekin (Kilian Jornet Foundation). Parte-hartzaileak: 10 (7 emakume eta 3 gizon)
- **2023ko otsailaren 22a**. Solasaldia Zaki magoarekin, Hondurasko proiektuen aurkezpena. Parte-hartzaileak: 21 (15 emakume eta 6 gizon).
- **2023ko apirilaren 27a**. Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema: DSBERen aldaketak erreformaren ondotik. (Tinixara Guanche, Ellacuria

Fundazioa). Parte-hartzaileak: 19 (11 emakume eta 8 gizon).

- **Maiatzaren 12a**. Dokumentalaren emanaldia: 'Puedes contar conmigo, experiencias de acogida' (Lagun nauzu, harrera-esperientziak). Parte-hartzaileak: 36 (21 emakume eta 15 gizon)
- **2023ko azaroaren 16a**. Laguntza zaurgarritasun-egoeretan. Parte-hartzaileak: 16 (10 emakume eta 6 gizon).
- **2023ko azaroaren 30a**. Boluntarioek parte hartzeko proposamen berriak. Parte-hartzaileak: 16 (10 emakume eta 6 gizon).
- **2023ko abenduaren 19a**. Barlovento: Gizartea eraldatzeko antzerkia. (Beatriz Velilla). Parte-hartzaileak: 26 (10 emakume y 16 gizon).
- **2023ko abenduaren 19a**. GHJen hastapen teorikoak (Alex Carrascosa, EDE Fundazioa). Parte-hartzaileak: 18 (10 emakume eta 8 gizon)
- **2023ko abenduaren 21a**. GHJen hastapen teorikoak (Alex Carrascosa, EDE Fundazioa). Parte-hartzaileak: 18 (10 emakume eta 8 gizon).

Formazio saioak
Sesiones de formación

Acercamiento teórico a los ODS

Alex Carrascosa
Fundación EDE

Abenduak 19 Diciembre 9.30h
Topagunean: Ezequiel Aguirre 19, bajo (Romo)

Anima zaituz eta eman izena /
Animate e inscribete:

613 053 893
hatirtze@pertsonalde.org

pertsonalde
Acogida, cooperación y sensibilización

Getxo

FUNDACIÓN EDE

Irteerak eta txangoak

Helburuak: harremanak indartzeko eta ingurua ezagutzeko egiten dira, parte-hartzaileek aisialdian berriro egin dezaketenen esperientzia izan dadin.

Hilaren bigarren igandean egiten dira, eta eguraldiaren arabera, egun osokoak edo egun erdikoak izan ohi dira.

Irteeran bertan, askotariko planak antolatzen dira parte-hartzaileen interesaren eta mugikortasunaren arabera. Plan horiek bazkalorduan eta helmugara iristean egiten dira. Garraio (publikoko) kostuak Pertsonaldek ordaintzen ditu

- **Otsailak 12.** Bisita San Mames zelaiko museoan. Parte-hartzaileak: 35 (18 emakume eta 17 gizon).
- **MARTXOAK 19.** Bisita Meatzaritzaren Museoan. Parte-hartzaileak: 29 (18 emakume eta 12 gizon).
- **APIRILAK 29.** Plentzia-Gorliz-Astondo ibilbidea. Parte-hartzaileak: 24 (9 emakume eta 15 gizon).
- **MAIATZAK 20.** Bisita Pobalgo burdinolan. Parte-hartzaileak: 30 (16 emakume eta 14 gizon).
- **EKAINAK 28.** Irteera Gaztelugatxera. Parte-hartzaileak: 34 (19 emakume eta 15 gizon).
- **MARTXOAK 23.** Getxoko Yelmo Artea zinemak. Parte-hartzaileak: 23 (13 emakume eta 10 gizon).
- **URRIAK 29.** Erroten ibilbidea, Armintza. Parte-hartzaileak: 38 (15 emakume eta 23 gizon).

- **AZAROAK 12.** Bisitaldia EHUko parke botanikoan. Parte-hartzaileak: 47 (23 emakume eta 24 gizon).
- **ABENDUAK 17.** Arenako hondartza, Gallarta. Parte-hartzaileak: 26 (7 emakume eta 19 gizon).

Urtean zehar hilean behin egiten diren irteera horiez gain, ekaineko proposamen espezifikoa, honako irteera eta bisita hauek egin dira: Visita al Museo de Bellas Artes de Bilbao

- **Bisitaldia Bilboko Arte Ederren Museoan**
- **Bisitaldia Bilboko Berreginen Museoan**
- **Bisitaldia Bilboko Arkeologi Museoan**
- **Bisitaldia Agurtza ontzia Museoan**
- **Bisitaldi gidatua Getxoko udalerrian**



Tailerrak

Informatika tailerra

Informatika-tailerra martxoan egin zen. Tailerrak bi saio izan zituen, informatikako oinarrizko ezagutzari buruz, eta Topaguneko material informatikoa erabili zen. Arratsaldean egin ziren saioak, astearteetan, 16:00etatik 17:00etara.

Tailerra erakundeak laguntzen dituen guztientzat antolatu zen, baldin eta ordenagailua erabiltzeko zailtasunik badute eta hobetzeko nahia badute.



Lana bilatzeko tailerra

Laneratze beharra dela eta, tailer honek lana bilatzeko, curriculum lantzeko eta lan-elkarrizketa prestatzeko jarraibide batzuk eskaintzen ditu. Horretarako, bi saio eman ziren, apirilaren 25ean eta maiatzaren 2an, 16:30etik 17:30era.



Jolasen tailerra

Tailer honen bidez, pertsonen kulturarteko topaldia dinamizatzen da MAHAI JOKOAK erabiliz. Hauexek dira proposaturiko helburuak: jolastea, “ondo pasatzea” sustatzea, hiztegi egokia eskaintzea eta hainbat kulturatako jolasak partekatzea.



Bi pertsonak dinamizatzen dute, eta guztira 26 pertsonak parte hartu dute urtean zehar.

Emakumeentzako antzerki-tailerra

Beatriz Velillaren eskutik, antzerki-saio bat egin zen martxoan emakumeentzat, eurak elkartzeko adierazteko eta partekatzeko gune propio gisa irudikatuta. Horrelako ekintza batek zer-nolako harrera izan lezakeen jakin nahi genuen, datorren urterako proposamen egonkor legez balioesteko. Erromoko Kultur Etxeko areto batean egin zen jarduera eta oso iritzi ona jaso zuen.



Eskulanen tailerra

Ekainean egindako jardueren proposamenaren barruan, hainbat aukera biltzen dituen tailer hau egin da:

- Loreontziak margotzea eta apaintzea.
- Serigrafia lantzea oihalezko poltsak apaintzeko.



Pintxo-tailerra

Era berean, ekaineko jardueren proposamenaren barruan, pintxo hotzak egiteko tailer hau gauzatu da. Proposamen horrek arrakasta handia izan zuen, batez ere, pintxoez gozatzeko eta egindakoen kalitate handia baloratzeko garaian.



GAZTELANIA ETA EUSKARA IKASTEKO ESKOLAK

Gaztelania ikasteko eskolak

Goizez ematen hasi ginen (10:00-13:00), ordu erdiko atsedena diarekin (11:30). Gaztelania ikasteko eskolak goizez eman dira, 10:00etatik

13:00etara, eta ordu erdiko atsedena egin da 11:30ean. Lanean dihardun migratzaileentzako eskolak dira, hizkuntza ikasteko eta topaketa-eta harreman-dinamika sustatzeko. Beste zerbitzu batzuen osagarria da, hala nola Helduen Hezkuntzarena.

Taldeak askotarikoak izan dira hainbat alderdiri dagokionez: migrazioen arrazoia, adin-tartea,

jatorria (Ukraina, Maroko, Aljeria, Senegal, Filipinak, Siria...), ezagutza-maila... Joan den urtean, 40 pertsonak parte hartu dute, lau taldetan banatuta: maila apaleko hiru talde eta maila ertaineko beste bat. Gainera, asteazkenetan gaztelania aurreratuko talde bat dago, eta talde horrek mintzamina lantzen du bereziki.

Gaztelaniazko ikastaroen batzordea osatu duen boluntarioen taldea 30 lagunekoa izan da.



Prestakuntzari lotuago dauden boluntarioen talde horretaz gain, kafe-atsedenari lotutako boluntarioen beste talde bat ere badago. 5 lagunek osatzen dute, eta astelehenetik ostiralera eskaintzen den hamaiketako prestakuntza aritzen dira. 10:30ak aldera iristen dira, beharrezko guztia prestatzen dute eta datozen egunetarako beharrezko erosketak egiteaz ere arduratzen dira.

Euskara ikasteko eskolak

Etxean laguntza hori izan ezin duten familia migratzaileetako haurrei laguntza eta euskarazko errefortzua eskaintzen zaie. Irakasle-taldea 5 pertsonak osatu dute. Eskolak astean bi egunetan eman dira, astearte eta ostegunetan, 17:30etik 18:30era.

14 neska-mutilek parte hartu dute, bi taldetan banatuta.

Ikasturtea aldatzeaz batera, hau da, 2023ko irailetik aurrera, eskolak astelehenetan eman dira, 5 adingabeko talde bakarra eta bi irakasle aritu direla.



BAKARRIZKETA: SALAH MOROLOGUISTA



Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela eta, migrazioen errealitatea umorez jorratzen duen ekitaldi hau eskaini da.

Salah aktore eta komiko gaztea da, bere migrazio-prozesua egin duena eta bere esperientziaren mugarri batzuk umorez kontatzen dituena.

Topagunearen helburuetako bat da laguntzen ari garen pertsonengandik sortzen diren jarduerak edo ekimenak bultzatzea, eta, horri esker, hitza eta erreferentzia eman ahal izan zaio lanean hasteko errealitate hori bizi izan duen eta lehen pertsonan hitz egiten duen pertsona bati.

LOKALEN LAGAPENA

Topagunearen helburuari jarraituz, eta toki hori Getxoko hainbat erakunderentzako erreferentziazko gunea izan dadin, kulturarteko bilgunea; hala eskatzen duten Getxoko erakundeei hainbat jarduera, bilera, topaketa... egiteko gunea eskaintzen zaie.

Ondokoek erabili dute gunea:

- Ongi Etorri Errefuxiatuak (Gobela)
- Munduko arrozak Prestaketa-bilerak.
- Berdintasuna
- Aisibizia. Ludotekako jardueren topaldiak.
- Getxoko zurrumurruen aurkako taldea.

Gizarte gidaritzako programa

2020. urteaz geroztik, Pertsonaldek gidaritza-proiektua garatzen du, Bidebarri/Getxoko udalerriko zaurgarritasunaren aurreko arreta emateko proiektuaren barruan lagundu dugun gazteentzat. Proiektu hori, gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren Trapezistak programari ere lotuta dago.

2023an, 4 gidaritza-bikote izan ditugu.

Topagunea bikoteei eskaintzen zaie, topaldiak egin ditzaten eta haietzako topagune izan dadin; bai eta aholkulariek talde teknikoarekin aldizkako kontrasteak eta bilerak egin ditzaten ere.

2023. urtean, Pertsonalde Gizarte Gidaritzako Koordinakundean sartu da, atxikitako erakunde gisa.

Orientazio juridikoko zerbitzuak

Topagunean, atzerritartasunari buruzko eremu juridiko-administratiboan, erakundeak lagunduta dauden edo Getxoko Harrera Bulegora joan diren eta Getxon bizi ez diren pertsoneri laguntzen zaie, baita Hazbide Fundaziotik bideratzen dizkigutenei eta Artizar proiektuan parte hartzen dutenei ere.

Besteak beste, egoitza baimenak, administrazio errekurtsuak, eskubideei buruzko aholkularitza edo abokatuaren laguntza eskatu dira.

Arreta jasotako pertsonak: 51 (24 emakume eta 27 gizon).

Getxoko migrazioen harrera eta arretarako bulegoa

2023an 251 pertsona artatu ziren bulegoan; lagun horiek lehen aldiz hurreratu ziren Getxoko Migrazioen Harrera eta Arretarako bulegora.

Batez beste, hileroko 20 lagun hurbildu ziren lehen aldiz bulegora. Arreta jasotako % 63 emakumeak izan ziren; beraz, arreta gehiena emakumeentzat da, eta horrek **udalerriko biztanleria migratzailearen errealitatea islatzen du.**

2023an, aurreko urtearekin alderatuta, **arreta-saioen kopuruak gora egin duela ikusi da. Arrazoietakoa bat Gizarte Zerbitzuen arloaren bideratzeen gorakada** izan daiteke. 2023an bulegora joan ziren pertsona gehienak zuzenean bideratu zituzten gizarte-langileek.

Aurten artatutako pertsonen jatorri-aniztasuna gorabehera, arreta jasotako gehienak Latinoamerikako herrialdeetatik etorritakoak izan dira. Hori bat dator bulegoaren arreta-historiarekin, eta Getxoko biztanleria migratzailearen errealitatea islatzen du.

Irailean, kontraste teknikoko eta prestakuntzako gunea garatu zen, Gizarte Zerbitzuen arloko teknikariekin elkarlanean. Bertan, osasun-laguntzarekin eta erroldarik gabeko adingabeen eskolatzearekin lotutako gaiak jorratu ziren.

Prestakuntza eta sentsibilizazio proposamena

Ondoko erakundeekin lankidetzan: Getxoko Udala, Eusko Jaurlaritza, Getxoko Zurrumurruen Aurkako Sarea, Círculo del Silencio Bizkaia, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Eraldatuz, Sarekide, Aisibizia, Transpirenaica Social Solidaria.

Ekainaren 23an, Getxon, "Munduko Arrozak" sentsibilizazio-proposamenean parte hartzea.

Ekimenaren helburua da topaketarako eta ospakizunerako guneak eskaintzea kulturartekotasunaren, aniztasunaren eta udalerrian bertan elkarreragiteko guneak sortzearen aldeko apustua egiten duten getxoztarrei.

Getxoko herritarren arteko topaketa- eta elkarreragin-aukerak sortzeko helburua duen programa da, herriko kultura-aniztasuna goستن baitute eta elkar ezagutu, uneak partekatu eta komunitatean zubiak eraiki nahi baitituzte.

Lehiaketa bat egiten da prestatutako arrozekin, eta aurten Pertsonaldek aurkeztutakoak irabazi du, marokoar jatorriko gazte batek koordinatuta

Mundutik Mundura Getxon parte-hartzea.

Erronka berriak mahairatzea eta GGKEek Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen laguntzeko egiten duten lana herritarrei hurbiltzea dira "Getxotik Mundura Mundutik Getxora" ekimen solidarioaren helburuak. Udalak bultzatu du ekimen hori, hainbat erakunderen laguntzarekin, eta aurten XXVI. edizioa bete du. GGKEen ohiko azoka azaroaren 26an, igandean, egin zen Muxikebarrin. Egun osoan zehar, herritarrek, erakundeen lana erakustokietan ezagutzeaz gain, sentsibilizazio-jarduera eta -proposamenean parte hartzea izan zuten.



Getxo isilik (Círculos del Silencio) ekimenean parte hartzea.

Etorkinen aurkako indarkeriaren aurrean, 2007. urtean frantziskotar talde batek ekintza hau hasi zuen Akitaniako Tolosan. "Zirkulu" horien bidez indarkeriarik gabeko kultura bultzatu nahi dute, mundu guztiarentzat irisgarria den ekintza baten bidez, sufritzen ari diren pertsonekin errespetuz jokatzeko eta gizarteak lege bidegabeei ematen dien babesa (bereziki etorkinen aurka doazenak) txikitzeko. Getxon, elkarretaratzeak **Algortako metroaren irteeran egiten dira, betiere hileko azken asteazkenetan, 19:30ean.**

"Puedes contar conmigo: experiencias de Acogida" dokumentalaren aurkezpena.

Pertsonalde elkarteak egindako harrera- eta laguntza-esperientziak biltzen dituen dokumental hau 2022an egin zen, baina aurkezpen ofiziala eta publikoa Topagunean egin zen, 2023ko maiatzaren 11n.

Boluntarioen Egunaren ospakizuna. Eusko Jaurlaritzaren deialdia.

Abenduaren 4an, Eusko Jaurlaritzak gure erakundeetako boluntarioen ekintza eskertzeko topaketa batera gonbidatu gintuen.

Pertsonalde elkartearen boluntarioen taldeko ordezkariak izan ziren ekitaldi horretan.



“M” dokumentalaren emanaldia eta ondoko eztabaida.

Pertsonaldekook Ongi Etorri Errefuxiatuak artezten duen proposamenean parte hartu genuen, hain zuzen ere, “M” dokumentalaren emanaldian eta ondoko eztabaida-saioan.

Bi saio egin ziren, bata Bilbon, Bilborock aretoan, urtarrilean, eta bestea Getxoko RKEn, otsailean. Ipar Afrikatik datozen gazteek gizarteratze-prozesuetan izaten dituzten egoera konplexuak aurkezten dituen dokumentala da. Ondoren, beren esperientzia kontrastatu zuten hainbat gazterekin eta dokumentalaren zuzendariarekin hitz egin ahal izan genuen.

Kulturartekotasun-adierazleei buruzko jardunaldia. Getxo

Pertsonaldekook parte hartu genuen Getxoko Gizarte Kohesioaren Arloak hirugarren sektore sozialeko erakundeei otsailean deitu zien hausnarketa-jardunaldian, kulturartekotasunaren kudeaketa positiboaren adierazleei buruz hausnartzeko.

Zaporeak Geure Egiten. Eraldatuz

Ekainaren 2an, larunbatarekin, Pertsonaldek parte hartzen dueneko Eraldatuz plataformak antolatutako Zaporeak Geure Egiten ekitaldia ospatu zen.

Udalerrian parte-hartzea sustatzen duen plataforma da, eta helburu hori sustatu eta errazten duten hainbat ekitaldi eta jarduera antolatzen ditu.

Orduko horretan, hainbat tailer egin ziren, eta gune bat sortu zen, Eraldatuz plataforma osatzen dugun erakundeetako pertsonak eta parte-hartzaileek egindako pintxoak probatzeko. Egun horretan bildutako dirua jarduerak finantzatzeko erabili zen, baita gurekin zeuden gazteei ile-apainketan beharrezkoa duten materiala erosteko ere.



Kulturarteko eta zurrumurruen aurkako ikuspegiaren erronkak eta aukerak erakundeetan.

Gure lankide Aichetuk Getxoko Zurrumurruen aurkako sareak deitutako mahai-inguru honetan parte hartu zuen, erakundeen kulturarteko eta zurrumurruen aurkako ikuspegiak sortzen dituzten erronkei eta aukerei buruz hausnartuta.

Transpirenaica Social Solidaria (TSS) ekimenean parte-hartzea

TSSrekin batera, ingurune naturalean gizartea eraldatzeko hezkuntza-arloko esku-hartze proiektu berritzaileak egiten ditugu kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden gazteentzat, haien gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko, balioak partekatzeko eta gizarte-erakunde, enpresa eta erakunde laguntzaileen artean gizarte-sare solidarioa sendotzeko.

Talde-lanaren, komunikazio-trebetasunen garapenaren eta abarren bidez gazteen gizarteratzea sustatzeko urtean zehar egindako beste jarduera askoren artean, gure unerik gorena ekaina eta uztaila bitartean dator, TSS zeharkaldian parte hartuta. Gizarteratzearen aldeko ibilaldia handia da. Gazteek eta hezitzaileek parte hartzen dute, boluntarioek lagunduta, Pirinioak zeharkatzen dituen 600 kilometroko ibilbideko abentura batean. Higer lurmuturretik (Euskal Herria) Cap de Creusera (Katalunia) egindako 30 eguneko ibilbidean, gazteek beren bidea partekatzen dute profesionalekin eta gizarte-erakundeekin batera, bidezidorretatik harrerako, hazkunde pertsonaleko eta gizarteratzearen aldeko sentsibilizazioko esperientziak partekatuz. Pertsonaldekook zeharkaldi handi horretan parte hartuko dugu astebetetz, Nafarroako Pirinioetatik barrena.

Sarekide lan-batzordeak aurkezteko jardunaldia

Sarekide Getxoko boluntarioen koordinakundeko kide gisa parte hartu genuen lan-batzordeen funtzionamendua aurkezteko bileran, 2023ko maiatzaren 3an deitutakoan. Bilera horretan, koordinakundea egituratu zen, iaz egindako hausnarketa estrategikoan oinarrituta.

"Kulturarteko eta zurrumurruen aurkako ikuspegiaren erronkak eta aukerak erakundeetan"
 "Retos y oportunidades del enfoque intercultural y antiRumores en entidades"

Gaztelekua, Algorta
 (C/ Urgull s/n Kalea)

OTSAILAK 1 FEBRERO, 9:30 - 11:30
 Erakundeen arteko solasaldia / Conversatorio entre entidades

Carla Davies Gómez
 - Mujeres con Voz

Ramón Tejada
 - Red Eraldatuz




Komunitatean esku hartzeko boluntarioria

Joan den urtean, boluntarioen parte-hartzea esanguratsua izan dela esaten jarrai dezakegu, eta horrek poz handia ematen digu. Hala ere, **beste pertsona batzuk gurekin lanean has daitezzen gogatzeko beharra ikusten dugu; ildo horretan, ekarpen handia egin diezagukeen gazte-boluntarioen jakin batentzat erakargarriak izatea gustatuko litzaiguke.**

Gure ustez, Topagune Elkar+ bezalako espazio bat izateak aukera eman du jarduera-proposamena bateratzeko eta boluntarioek beren jarduerak egiteko berariazko gune bat izateko, esku-hartze komunitarioa egituratzeko aukera emanez, ekintza-gaitasun handiagoa eta jarduera handiagoa eskainiz, programa berrietan parte hartuz.

Gainera, hainbat jardueretan **gogotik parte-hartzen duen boluntarioen sarea 60 pertsona inguruk** osatzen dute.

Hurbileko **gizarte oinarria mantentzen jarraitu dugu elkarteko 200 pertsonarentzat.**


Boluntarioen proposamena batzordeen bidez egituratzen da. Batzordeek beren interesak bideratzen dituzte eta inguruneko beharrei erantzuten diete: harrera, irteerak, kafe-atsedena, pedagogia eta kudeaketa.

Boluntarioen engaiamenduak ahalbidetzen dio elkarteari bere jarduerak eta misioa gara ditzan; **boluntarioak dira erakundearen funtsezko ardatza.** Ekintza esku-hartze komunitarioan oinarritzen duen erakundea da. Boluntarioen parte-hartzeari, konpromisoari eta konfiantzari esker, erakundea sinesgarriagoa da.

Lantalde teknikoak bideratzen ditu esku-hartzeak, hausnarketa bultzatzen du eta beste erakunde batzuekiko koordinazio dinamiketan laguntzen du.

www.pertsonalde.org

Jarrai gaitzazu sare sozialetan



2023ko proiektuen txosten ekonomikoa

Sarrerak: 435.447€

29.536€ (% 6,78) Bazkideak: kuotak eta dohaintzak

316.716€ (%72,74) Dirulaguntza publikoak

117.531€ Eusko Jaurlaritza

170.435€ Getxoko Udala


28.750€ Bizkaiko Foru Aldundia

20.310€ (%4,66) Dirulaguntza pribatuak

10.000 Gondra Fundazioa

10.310 La Caixa Fundazioa

68.885€ (%15,82) Zerbitzugintzas (%0,60)



■ Bazkideak
■ Dirulag. publikoak
■ Dirulag.pribatuak
■ Zerbitzugintza

Gastuak: 431.232€

Lankidetzaproiektuak: 14.300€ (%3,40)

Gizarteratze-proiektuak: 414.205€ (%96)

Artizar 15.000€

Topagune 38.525€

Harrera Bulegoa 56.894€

Loturak 39.825€

Goihabe 25.041€


Auzolana 10.050€

Emakumetasunez 19.951€

Getxoko Zaurgarritasuna 136.141€

Trapezistak 72.778€

Sentsibilizazio-proiektuak (% 0,60) 2.727€



■ Lank. proiektuak
■ Harrera proiektuak
■ Sents. proiektuak

www.pertsonalde.org